

# BIDANKOZARTE

Lege gordailu: NA 2365-2015

## Bidankozeko aldizkari historiko-kulturala

### Edukiak

- Jatorrira buelta ..... 1
- *Independentziako Gerraren balantze* ..... 1
- Bidankozeko abizenak: Jimeno ..... 2
- Jimeno zinegotzia, kargugabetua ..... 2
- *Iturriondo etxea* ..... 3
- Coca-Cola Bidankozen ..... 3
- Bidankoze 1918an ..... 4
- Mariano Mendigatxaren heriotzaren mendeurrena (1918-2018) ..... 4

Kontaktu: Gotzon Perez Artutx  
bidankozarte@yahoo.es

Eduki gehiago:

www.vidangoz.com/bidankozarte/  
Facebook [Bidankozarte]  
twitter.com/bidankozarte

### Jatorrira buelta

Azken lau zenbakiak aldizkariak 21. alera arteko zuen estruktura egonkorrekin hautsi zuten, neurri handi batean *Bidankozartek* sare sozialetan izandako ekintza biziaren eraginez eta, 24. zenbakiaren kasuan, *koloniek* Bidankozera egindako itzulerak sortutako monografikoarengatik.

Facebooken zein Twitterren argitaratze erritmoa bizia zenez, honek maila handiagoko proiektuen kaltean izaten zen, eta nire egitasmo zati hori berreskuratzen saiatuko naiz.

Horrela, eta hainbat musika taldek haien azken diska aurkeztean esaten duten moduan, zenbaki hau jatorrira buelta bat dela esan dezake, nolabait ohiko formatua berreskuratzen baitu eta Historia apurra, Oikonomia, Mariano Mendigatxa eta abar bezalako atalak berreskuratzen dituelako.


Goazen, bada, edukiekin.

### *Independentziako Gerraren balantze*

1817. urtean, *Independentziako Gerra* (1808-1813) amaitu eta lau urte beranduago, Nafarroan oraindik gerraren balantzea egiten genbiltzan. Urte hartan, Erronkaribarrek '*Relación dada por el Valle de Roncal de los individuos que se alistaron en la División de Navarra durante la Guerra de la Independencia y de los acontecimientos de la misma*' izeneko agiri bat idatzi zuten, bertan gatazkan parte hartu zuten bidankoztarren hainbat datu zehatz aurkituz.

Orokorrean, agiriak azertzean deigarria da Bidankozek liskarrean izan zuten parte-hartze eskasa, Erronkaribarreko beste edozein herrikoa baino askoz txikiagoa. Horrela, gudan ofizialki aritu ziren 124 soldadu erronkariarretik, zazpi besterik ez ziren gure herrikoak: Lorenzo Bidart Urzainki [egungo *La Santa*], Luis Ximenez Urzainki [*Zinpintarna*], Kalixto Navarro Urzainki [*Danielna*], Juan Antonio Malli Urzainki [*Malli*, gaur egun '*Arllako garajea*' deitutako etxea, edo hau eta *Rakax* etxeen arteko zatia], Francisco Calvo Karrika [gaurko *Udaletxea*], Anizeto Ximenez Urzainki [*Zinpintarna*] eta Salbador Villanueva Hualde [*Santxena*]. Gainera, haietako inork ez zuen ofizial maila (Erronkaribarreko gainerako herri guztietan bina edo gehiago bazituzten), eta gerra amaitu zen lehenengo hirurak hilda izanda, laugarrena militar gisa karrera egiten (1817an dagoeneko sarjentu maila bazuen) eta gainerako hirurak '*erretiratu*' bezala agertzen ziren. Hau ikusita, logikoki, Erronkaribarreko hirietatik gurea izan zen hildako gutxien izan zituena, hurrengorengandik urrun (Gardek zazpi hildako izan baitzituen) eta guztiz bestelakoa Burgin zein Uztarrotzen egon ziren hamalau

Erronkariarrak Frantziako armada inperialari segada egiten Burgiko La Botxuelan [Iturri: estella.info]



hildakoekin.

Arpilatzei dagokienez, badirudi honetan ere Bidankozek ez zuela kalte handirik jaso, bailarako eragin gutxien izan zuten bigarren hiria izanda, Garderen atzetik, eta ezin konparatu erretako Burgik eta Izaban pairatutakoarekin.


Aurkitutako beste aipu bitxi bat badago: frantsesek etxe bat erre zuten Bidankozen, bakarra (eta ez dakigu zein), Burgi eta Izaba erabat erre zutenean, Urzainkin 17 etxe eta 14 etxe gehiago Erronkarin.

Azkenik, Bidankozen eragin handia izan zutenak azienda konfiskatzeak izan ziren, frantsesek 2500 ardi atzeman baitzituzten (soilik Izaban eta Urzainkin harrapatu zituzten gehiago) eta zortzi idi/zaldi (soilik Burgin eta Erronkarin gainditua).

Eta honez gain, Erronkaribarraren kapitulazioarekin ordaindu zena... Denentzako zorigaitzoko izan zen gerra baten ondorioak.

Beno, beste zenbaki batean duela 200 urteko eguneroko Bidankozeren berri emango dut.

## Bidankozeko abizenak: Jimeno



Ángel Jimeno Salbotx  
[Zinpintarna / Llabari]

### Jimeno zinegotzia, kargugabetua

Istorio nabarmena izan duen Jimeno abizeneko baten bila gaizki ibiliko nintzela uste nuen, baina orduan joan den bedatsean aurkitutako agiri bat etorri zitzaidan burura, ezezaguna den gertaera hori tokiz kanpo utzi ninduen.

Istorio honek 1936ko urrietako Bidankozera eramango gaitu, *Gerra Zibila* hasi berria zegoenean. Gure herria, Nafarroa osoa orokorrean bezala, gune 'nazionala' zen, hau da, frankisten menpekoa. Eta printzipioz, eta kontaktu digutenaren arabera edota herri-memorian geratu denaren arabera, *Landa* familiakoek besterik ez zituzten errepresaliak jaso ezkertiarrak izateagatik.

Bada, badirudi ez zirela bakarrak izan. Izan ere, istorio triste honen protagonistari, orduan Bidankozeko Aiza-bulguan zinegotzia zen Ángel Jimeno Salbotxi [Zinpintarna / Llabari] errepresio politika pairatzea egokitu zitzaion, zinegotziko postutik kargugabetzarekin 'ezkerren zalea izateagatik'.

Bitxia benetan azken urteotan oroimen historikoko ikerketan izandako aurrerapenekin inork ez duela kargugabetze honen berri eman. Beraz, ezagutarazi beharko.

Tira, ziur Ángel Jimenok berak nahiegoko luke atal honetan agertu ez izana ... [Informazio gehiago blogean].

Oraingoan sakonduko dugu Bidankozen nahiko zabaldua dagoen beste abizen baten historian, gure artean hainbeste denbora ez daramana, baina hainbat konturengatik herrian hedatu da eta azken 200 urteetan dagoeneko 15 etxe ezberdinetatik igaro da dagoeneko. Eta kasualki, joan den udan bertan bi mende bete ziren abizena Bidankozera iritsi zela, Meltxora Perez Onko [Aldaberna, gaurko Jimeno etxea] bidankoztarra eta Pedro Ximeno Urrizelki irurozkitarraren (Urraul goiti) arteko ezkontzarekin (1817/07/27).

Ezuste handirik gabe, Irurozkitik Bernabel etxean bizi. Garro lehenengo Jimeno hori etxetik ere abizena asko okupatu zuen etxea gaur 1817an iritsi zen hedatu zen, Jose Mariaren egun Jimeno etxea deitzen lehenengo Jimeno-bost seme-alaba Bidankozen duguna dela aurki dezakegu, no Bidankozera ezkondu baitziren: Luisa, Jimeno aitzindari hori Jimeno Antxon etxera; Donata, etxeko Mainz Salbotx anai-arreben *Largotena* etxera; Felipe, *Hualderna* herenaitona baita, hau da, duela lau etxera; Fulgencia, *Calderero* etxera; belaunaldikoa. eta Juana Garro etxean geratu zen. Felipe mutil bakarra izanda, abizenaren transmisioa *Hualderna* etxera igaro zen, gaur egunera arte eutsiz, eta hortik baita ere beste etxe batzuetara hedatuz bere alabekin: *Larranbe* etxera Atanasiarekin eta *Arbizu* etxera Maria Biktoriarekin. Eta *Hualderna* etxean geratu zen adarretik, *Gaiarre* etxera ere pasatu zen abizena Jesusekin.

Jimeno Pérez lehenengo sendia hark zazpi seme-alaba izan zituen, eta haietako lauk Bidankozen ezkondu ziren:

1.- Matheo Vizente Jimeno etxean geratu zen. Adar hau hurrengo belaunaldian galdu egin zen bere alaba bat (Juliana Meltxora) oinordetu eta gazte hil zenean. Hutsunea betetzeko, *Landarna* etxera ezkondua zen Jose Isidoro itzuli zen, bere bigarren emaztearekin, *Landarna* etxean bere lehenengo ezkontzako alaba bat (Nikolasa) geratzen eta Jimeno etxean bigarren bikotearekin izandako alaba bat (Manuela). Bietan emakumeak oinordetzean, abizenak ez zuen etxe hauetan jarraipenik izan. Jose Isidoren bi seme Bidankozen ezkondu ziren, Pedro Jose (1. bikotekoa) Zinpintarna etxera eta Juan Frantzisko (2.ekoa) *Fuertes* etxeko batekin, baina Argentinara emigratu zuen. Zinpintarna etxean Elenak oinordetu zuen, eta berarekin eten zen abizenaren transmisioa. Baina Elenaren neba bat, Ángel, Bidankozen ezkondu eta *Llabari* etxera igaro zen (bertan aurretik Jimeno abizena egona zen), alabak besterik

ez izaten eta gelditzen, berriz, Jimeno abizenaren transmisioa.

2.- Juan Meltxor *Danielna* etxera ezkondu zen, eta etxea bere alaba Josefa oinordetu zuen arren, eta horrekin Jimeno ez jarraitzen etxean, beste bi semeek *Llabari* eta *Garro* etxeetara eraman zuten abizena (Pablo eta Jose Maria hurrenez hurren), eta alaba bat (Bizenta) *Ornat* etxera ezkondu zen. *Llabari* etxeko seme mutil bakarra, Doroteo, Argentinara joan zen bere arrebak bezala, nahiz eta semeak (Irene eta Bernardino) Bidankozen geratu eta

3.- Manuela Tomasa, *Hualderna* etxera, baina bere abizena bigarren tokian joanda, Jimenok ez zuen jarraipenik izan.


4.- Jose Isidoro *Landarna* etxera igaro zen. Bere 1. ezkontzako alaba batek (Nikolasak) oinordetu zuen etxea, eta 2. bikoteko beste alaba batek (Manuelak), *Jimeno* etxea, baina abizenak ez zion eutsi ez etxe batean ez bestean.

Eta lehenengo Ximeno haren iloba bat ere *Arguedas* etxera ezkondu zen.

Askotarako eman duten Jimenotarren bost belaunaldiak (beno, *Hualderna* eta *Gaiarre* etxeetan 7.ean daude).

Artikulu honen inguruko informazio gehiago blogean aurki dezakezue.

Pedro Ximeno eta Meltxora Perez-en ezkontza-agiria (1817/07/27)



Bidankozarteko azken lau zenbakietan ez egon ondoren, bueltan dago oikonimia, eta ordura arte generaman ordena jarraituz, oraingoan berriro Iriartera auzora jo behar dugu, zehazki gaur egun *Iturriondo* etxea deitzen duguna (antzinako *Aristuko etxe zaharra*).

Etxe honetako gorabeherak Bidankozeko ezezagunenetarikoak dira zeren, gehienek ez bezala, etxe honek ez baitu sendi bereko hainbat belaunaldiko egoitza izan. Hemendik familia ugari igaro dira, maizter ziur aski, baieztaatu ahal dudan uneraino eraikinaren jabea *Aristu* sendia baitzen eta horrela erakusten du antzinatik herrian ematen zion izenak (*Aristuko etxe zaharra*).

Baina, zoritxarrez, ez dakigu 1861era arte etxe honetan nor bizi zen, urte hartan parrokia-matrikulak idazten hasi baitziren, arimen errolda antzeko zer bait.

Horrela, etxe honetan bizi zen ezagutzen dugun lehenengo familia Felix Gutierrez *zirujau*arena izan zen, eta herria 1861. urtean bertan utzi zuen. Honen ondoren, eta hamabost urtez, hutsik egon zela dirudi, III. *Gerra Karlistaren* amaieratik (1876) berriro okupatuta izateko. Orduan, eta urte batez besterik ez, Xabier Argedas Mainz [*Arguedas*] eta Petra Gaiarre Mainz-ek [*Molena*] osatutako bikotea bizi zen bertan, 1877. urtean haien behin-betiko etxera pasatuz, hau da, *Molena* etxera.

Urte horretan bertan beste bikote bat iritsi zen etxera, Rufino Mainz Clemente [*Refelna*] eta Frantziska Urtasun Almandoz-ek [Donamarian jaioa, baina Bidankozen *zirujau* egondako Juan Urtasunen alaba] osatuta. Bikote honek ez zuen ondorengorik izan eta etxea bi garai ezberdinetan okupatu zuen: 1877-1889 eta 1894-1897.

Etxean falta ziren lau urteetatik bitan (1891-1892) Meltxor Fuertes Salbotxek [*Azku*, lehenengo *Fuertes* etxekoa] eta Petra Maisterra Mikeleiz [Igari] burutzen zuten sendia egon zen etxean, hau izanda familia horrek okupatutako hainbat etxeetako bat.

1896tik 1909ra (etxea Mainz Urtasun-darrekin partekatuz lehenengo bi urteetan) Angel Sanz Artutx [*Txikiborda*, antzinako *Kurll*o], Manuela Salbotx



Egungo *Iturriondo*, antzina *Aristuko etxe zaharra* deitzen zutena

## Iturriondo etxea

Urzainki [*Zinpintarna*] eta haien seme-alaben etxea izan zen.

Sendi honi Matias Aizagar Andreu [*Cosme* etxean jaioa baina *Aizagar* etxean bizi zena] eta Rosa Salbotx Urzainkik [*Zinpintarna*] burututako familia jarraitu zion, eraikin honetan 1910-1920 artean biziz.

Eta, gertuko garaiez aparte, bertan bizitako azkenak Montes Fuertestarrak izan ziren, Julian Montes Glaria (Erronkarikoa eta arotza) eta Biktoria Fuertes Salbotx [*Lixalte*], 1921ean besterik ez.

Hurrengo bost hamarkadetan ez zen etxebizitza gisa erabili, eta 1970eko hamarkadaren hasieran *Lixalte* familiak erosi zuen, izan zuten taberna eta dendarako biltegi.

Azkenik, 1993an berreraiki zen, beheko solairua *Lixaltetarrentzako* biltegi izateari eutsiz eta gainerako solairuak Gartzia Ezker sendiaren etxebizitza bihurtuz, Ana M<sup>a</sup> Ezker Landa *Algarra* etxekoa izanik.

*Iturriondo* izena Bidankozen duen kokapenari dio zor, '*iturri ondoan*' baitago.

Agerian geratu denez, etxe honek uste genuen baino historia gehiago bazuen.



*Aristuko etxe zaharra* 1940ko hamarkadan. Aurrean, latsarria.

XIX. mendearen erdira arte ez dut etxe honetako arrasto dokumentalik aurkitu. Eraikin honen izaeraren lehenengo zantzua 1854ko katastro espedienteetan aurki dezakegu, hor lehenengo aldiz Antonio Glaria (garaiko *Aristutarren* familia-burua) bi etxetako jabe bezala agertzen baita, eta suposa dezakegu hau horietako bat izango zela (aurreko katastroan, 1852koa, etxe bakarra zuen, beraz, eresketa 1852-1854 tarte horretakoa izango zen).

## Coca-Cola Bidankozen

Bidankozeko karririk geratzen diren *propagandarik gabeko* toki gutxienetarikoa jo ditzakegu. Bada, etxe hau izango da marka handi baten publizitatea erakutsi duen bakarra (edo bakarrenetarikoa), *Coca-Colakoa* hain zuzen ere!



*Coca-Colako* kartela, 1970eko hamarkadan.

## Bidankoze 1918an: jaioak, ezkonduak eta hildakoak

1918 historiak gorritz markatutako urte haietako bat da bi arrazoi ezberdinengatik eta, nahiz eta Bidankozen eragin zuzenik ez izan, erreza da ikustea inguruetan bi horiek utzitako ondorioak nabariak izango zirela: *I Mundu Gerraren* amaiera eta gripe izurritea.

joko zuela, gure herriak 1855eko kolera izurriteak egindakoaren antzera.

Esaten nuen moduan, bada, giroa ez zen oso atsegina, eta horren isla dugu urte osoan ezkontza bat besterik ez egotea, are gehiago kontuan hartzen badugu aurreko urtean ere eztei bakarria egona zela eta batez beste hiru ezkontza urtean ospatzen zirela. 1918an elkarri baitza eman zuen bikote bakarrak Jeronimo Sanz Calvo [La Cabrera / Txantxolit / Ornat] eta Martina Ornat Jimenok [Ornat] osatua izan zen, ordutik Ornat etxeko familia buruak bihurtu zirenak.

[Refelna], N. Landa Ornat [Bomba], Antonino Ezker Perez [Landarna], Bernardino Jimeno Mendigatxa [Llabar], Jacoba Iriarte Sanz [Iriarte], Robustiano Landa Argedas [Arotx], Basilides Elizalde Sanz [Elizalde], Eusebio Urzainki Urzainki [Pantxo], Felisa Paskel Ornat [Paskel], Mikaela Mainz Landa [Landa], Gerardo Gaiarre Nekotxea [Gaiarre], Klemente Sanz Sanz [Daniela], Dativa Sanz De Miguel [Arlla] y Santiago Ornat Sanz [La Santa]. Hala ere, eta nahiz eta haietako batzuk premu izan, oso gutxi bihurtu ziren familia-buru Bidankozen.

Hildakoei dagokionez, batezbestekoa baino pixka bat gehiago (hamaika 1918an eta zortzi batez beste), sei heldu eta bost haur. Helduak Akilino Antero Larranbe Urzainki [Larranbe], Justa Ornat Juanko [Algarra], Frantziska Argedas Rekalde [Arotx], Mariano Mendigatxa Ornat [Mendigatxa], Basilio Karrika Iriarte [Itzalle / Hainbat etxe / Pexenena] eta Bernardo Rodrigo Usieto [Nabaskoze / Maizena] izan ziren, eta hildako haurrak, berriz, Secundino Urzainki Urzainki [Pantxo], N. Landa Ornat [Algarra], Robustiano Landa Argedas [Arotx], Ana Ornat Landa [Bomba] eta Julia Ornat Sanz [La Santa] izan ziren.

Urte akitua, batez ere jaiotzei dagokienean, eta ziur aski zaharrenetako askok ezagutuko dituzuen izen asko, baina baita ezustekoren bat. Denetarik egon behar da ...



1918an ezkondu zen bikote bakarra: Martina Ornat Jimeno [Ornat] eta Jeronimo Sanz Calvo [Txantxolit / Ornat], argazkiak Anunzia Artutx Sanz [Ornat/Peñeta] haien bilobarekin

Espainiak *I. Mundu Gerra* parte hartu ez zuen arren, horrek izugarriko zirrara izan zuen mugaren bestaldeko gertu dauden herrietan, eta garai hartan gaur egun baino harreman estuago bazegoen haiekin. Santa-Graziko elizaurian bertan dugu adibide garbia, bertan ikusi baitezakegu gatazka hartan hildakoen kopurua (60 hildako 900 biztanle inguruko herri batean).

Bestalde 18ko Gripe edo Gripe Espainola famatua badugu, Bidankozen zehazki hildakorik ez utzi arren, ziur aski gure inguruko herriren batean gogor

Gutziz bestelako egoera jaiotzei dagokiena, urte bereziki ugari izan baitzen 20 haur berriekin, 10 neska eta 10 mutiko, batez beste 12,5 haurretakoa zenean. Ziur garaiko emaginari ez zitzaiola ahaztuko hamar erditze izan zuen bedatse hori. Urte hartan jaiotakoen izenak eta jaiotetxeak / ezkontetxeak hurrengoak dira: Purificacion Landa Urzainki [Arriola], Margarita Sanz Ornat [Ornat / Montxonena], Lucio Urzainki Mainz [Artutx], Josefa Sanz Jimeno [Zinpintarna], Terencia Sanz Fuertes [Txantxolit], Prudencio Iriarte Rodrigo [Maizena], Felipa Ysabel Mainz Mainz

## Mariano Mendigatxaren heriotzaren mendeurrena (1918-2018)

Ziur nago zuetako batzuek datuari erreparatu diozuela, baina badaezpada, seinalatuko dizuet: duela 100 urteko hildakoen artean Mariano Mendigatxa [Mendigatxa] famatua dugu, argitalpen honetan hainbatetan aipatu dudana.

Efemeridea aprobetxatuz, 2018an bidankoztar hau ezagutarazten saiatuko naiz, ez soilik Erronkariko Uskararen inguruan hainbat hizkuntzalarien laguntzan egindako ekarpenak eta

elkarlana, baizik eta hain ezagunak ez ditugun beste hainbeste ikuspuntuetatik, interesgarriak baitira ere: *Mendigatxa* familiaren gorabeherak, Marianoren bizitza publikoa eta herrian izan zituen karguak, berak deskribatutako herria, ohiturak, abestiak, ospakizunak eta antzinako bizimoduak, eta abar ...

Mendeurrenak ez dira urtero ospatzen, eta are gutxiago gure herria ezagutzeko errua duen norbaitena ...



Mariano Mendigatxa Ornat (1832-1918)